

ERABAKIA, 2017ko EKAINAREN 1ekoa, UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO GERENTEARENA, HORREN BIDEZ INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIEN GERENTEORDETZAKO GIGEKO BURUA LANPOSTUA DEIALDIA EBATZI DA. (2017ko apirilaren 3ko DEIALDIA)

GERTAKARIAK

Lehenengoa.- Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearen 2017ko apirilaren 3ko erabakiaren bidez deialdia argitaratu zen.

Bigarrena.- 2017ko maiatzaren 17ko erabakiaren bidez, aipatutako deialdian onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratu zen.

Hirugarrena.- Gerentzia honek deialdi honetan onartutako izangaiek adierazi eta egiaztatu dituzten merezimenduak baloratzeari ekin dio.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Gerentzia honek eskumena du erabaki hau emateko; izan ere, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena hartutako 2017ko urtarrilaren 25eko errektorearen erabakiaren bidez (2017ko otsailaren 3ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian), eskuordetu zaio horretarako eskumena.

Bigarrena.- Deialdiko lanpostua Eginkizunen Esleitzean erregimenaren bidez hornitzeko prozedura hau da: AZPko lan kontratudunen plangintza batzordearen 2013ko uztailaren 4ko Akordioa (AZPko lan kontratudunei eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzeari buruzkoa), UPV/EHUko Gobernu Kontzeiluaren 2013ko uztailaren 18ko bileran berrestatua,

Hirugarrena.- Aipatutako prozedurak ezartzen du hautatua izango dela merezimenduak hurrenkera ordenatuan baloratu ondoren goren geratzen den pertsona.

Horregatik guztiagatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau

EBAZTEN DU

Lehenengoa.- Eranskinean jasota dauden baldintzetan eta azaltzen den lanpostuari eginkizunak esleituta hautatutako lan kontratudun langilea atxikitzea.

Bigarrena.- Esl eipena lanpostuaren titularrak jubilazio partziala hartzen duen eguneko ondorio-datatz egitea. Esleipen hori indarrean egongo da 2013ko uztailaren 4ko akordioaren 8. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Hirugarrena.- Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHUren webgunean.

Laugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, dagozkien Zerbitzuko Buruei edo Administrazioaleei, eta nomenen atalari. Har beza kontuan AZPren atalak.

Bosgarrena.- Erabaki honen kontra lan-auzibideko epaitegi eskudunaren aurrean aurkeztu ahal izango du interesdunak demanda. Demanda jartzeko epea bi hilabetekoa izango da, Erabaki hau jakinarazten den biharamunetik. Hori guztia, 36/2011 Legeak urriaren 10eko Gizarte-arloko jurisdikzioa arautzen duen Legeko 69,2. artikuluetan ezarritakoa betetzeko.

Leioan, 2017ko ekainaren 1ean.

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2017ko urtarrilaren 25eko erabakia (2017ko otsailaren 13ko EHAA).

GERENTEA

Miren Lorea Bilbao Arteché



I. ERANSKINA

2017ko apirilaren 3ko EGINKIZUNEN ESLEIPENA deialdiaren Erabakia

Esleipenduna: LORENA FERNANDEZ LOPEZ
Lanpostua: GIGeko burua
Erref: L 283
Zenbatgarrena: 1
Lanaldia: Araitua
Taldea: 1
Categoría profesional: IKTKo goi mailako teknikaria
Espezialitatea: Aplikazioen Informatika
Maila: 28
HE: 3
Langunea: INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIEN GERENTEORDETZA
Campus: BIZKAIA
BE:
Ondorio data: Lanpostuaren titularrak jubilazio partziala hartzen duen egunekoa.

